Agintariak eta Langileria

Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

5585

205/2010 EBAZPENA, urriaren 28koa, Bizkaiko Barrualdeko Osasun Eskualdeko zuzendari gerentearena, Juan Ignacio Salgado Sáenz jaunari Galdakaoko Lehen Mailako Atentzioko unitateburu funtzioak esleitu izana ezeztatzen duena, berak hala eskatuta (Barrualdeko Eskualdea, Bizkaiko Osasun Barrutia).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualdeko Osasun Eskualdeko zuzendari gerentearen apirilaren 3ko 152/2006 Ebazpenaren bidez esleitu zitzaizkion Juan Ignacio Salgado Saenz jaunari Galdakaoko Lehen Mailako Atentzioko unitateburu funtzioak (Barrualdeko Eskualdea, Bizkaiko Osasun Barrutia).

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplika daitezkeen gainerako xedapenak aztertu eta gero, Gerentziako Zuzendaritza honek hau

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Juan Ignacio Salgado Sáenz jaunari Galdakaoko Lehen Mailako Atentzioko unitateburu funtzioak esleitu izana ezeztatzea, berak hala eskatuta (Barrualdeko Eskualdea, Bizkaiko Osasun Barrutia).

Bigarrena.– Ebazpen honek 2010eko abenduaren 13tik aurrera izango du indarra.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Osasun Laguntzako Zuzendaritzari ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Bosgarrena.– Deialdiaren 8. oinarrian xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Osakidetzako zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Amorebieta-Etxano, 2010eko urriaren 28a.

Bizkaiko Barrualdeko Eskualdeko zuzendari gerentea,
ENRIQUE MAIZ OLAZABALAGA.

Autoridades y Personal

Nombramientos, Situaciones e Incidencias

DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

5585

RESOLUCIÓN 205/2010, de 28 de octubre, del Director-Gerente de la Comarca Sanitaria de Interior de Bizkaia, por la que se revoca, a petición propia, la asignación de funciones a D. Juan Ignacio Salgado Sáenz como Jefe de Unidad de Atención Primaria de Galdakao, Comarca Interior, Área de Salud de Bizkaia.

Mediante la Resolución 152/2006, de 3 de abril, de la Directora-Gerente de la Comarca Interior de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se asignaron las funciones de Jefe de Unidad de Atención Primaria de Galdakao, Comarca Interior, Área de Salud de Bizkaia, a D. Juan Ignacio Salgado Saenz.

Vista la Ley 8/1997, de 26 de junio, el Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, y demás disposiciones de pertinente aplicación, esta Dirección Gerencia,

RESUELVE:

Primero.– Revocar, a petición propia, la asignación de funciones de D. Juan Ignacio Salgado Sáenz, como Jefe de Unidad de Atención Primaria de Galdakao, Comarca Interior, Área de Salud de Bizkaia.

Segundo.– La presente Resolución tendrá efectos, el día 13 de diciembre de 2010.

Tercero.– Notificar la presente Resolución al interesado y a la Dirección de Asistencia Sanitaria.

Cuarto.– Ordenar su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Quinto.– Con arreglo a lo establecido en la base 8 de la convocatoria, contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes, contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Amorebieta-Etxano, a 28 de octubre de 2010.

El Director Gerente de la Comarca Interior de Bizkaia,
ENRIQUE MAIZ OLAZABALAGA.